

IV. ERANSKINA: Berokuntzan energia aurrezteko proposamenak

- **Termostato programagarriek** energia aurrezten lagundu dezakete, berokuntzarako tenperatura egokia programatzea ahalbidetzen baitute.
 - **Balbula termostatodunek** berogailuetan gela bakoitzeko tenperatura erregulatzen ahalbidetzen dute, eta beraz, doaneko energia ekarpenez baliatzen dira, esaterako, leihoetatik sartutako eguzki argiaren epeltasuna edo jende asko egoteak sortutakoa, eta abar. Balbula termostatodunek ur beroaren sarrera automatikoki erregulatzen dute aukeratutako eta erregulatutako tenperaturaren arabera, eta giro-tenperatura, sentsore batek neurtzen duena, programatutakora hurbiltzen denean itxi egiten da, ur beroa oraindik irekita dauden beste berogailuetara zuzenduz. Honela, balbula termostatodunek giro tenperatura nahi den tenperaturan mantentzea ahalbidetzen dute, kanpoko zein barneko bero ekarpenak kontrolatuz, hala nola giro egoeren arabera.
 - Galdararen **mantentze lan** egoki batek energia aurrezten laguntzen du.
 - **Berogailuak** altzariekin edo mahaiekin **trabatzea saihestu** behar da. Horrela hainbat eragozpen ekartzen baititu: berotzeko denbora luzeagoa, bero gutxiagoa ematea, kontsumo energia handiagoa...
 - **Berogailua piztuta dagoen bitartean leihoak irekita egotea, energia galera da.** Hobe da berogailuak apaldu edo itzaltzea. Azken batean, kontua da konfort tenperatura kontrolatzea, berokuntza sistemaren bidez.
 - **Gauean pertsianak jaitsi behar dira**, bero galera handia saihesten baita.
 - **Hobekuntzak isolatzailean**, honek energia aurrezten laguntzen baitu.
 - **Leihoek** isolatzen edo beroa galtzen lagundu dezakete. Leiho bikoitza edo beira bikoitzekoak onenak dira energia aurrezteko.
 - Berogailua piztuta dagoen bitartean leihoak edo atea irekita egotea alferrikako energia galera da. **Ikasgela aireberritu** behar bada, aski da leihoak 10 bat minutuz irekitzea: aireberritzeko ez da denbora luzeagorik behar eta energia alferrik xahutzen da.
 - **Neguko konfort tenperatura** 19 eta 21°C bitartekoa da egunean eta gauean 15 eta 17°C. Tenperatura igotzen den gradu bakoitzeko, energia %7 handitzen da.
 - Korridoretako edo gutxi erabilitako guneetako **berogailuak kendu edo gutxitu.**
-